

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko MAIATZA


Euskal AEko industri jarduera %2,3 hazi zen 2003ko maiatzean

2003ko lehenengo bost hilabeteetan Industri Produkzioaren Indize Orokorra %1,3 igo da.

2003ko maiatzean, %1,3 jaitsi zen Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean, 2003ak aurreko ekitaldiak baino lanegun bat gutxiago izan duelako, EUSTATEk landutako datuen arabera. Datuak balio homogeneotan neurtu ahal izateko lan-egutegiaren eragina zuzenduta, maiatzeko urte arteko tasak %2,3ko aldakuntza positiboa agertzen du.

Datu horiekin, urteko lehenengo bost hilabeteetako tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %0,7ko hazkundea izan du balio absolutuetan neurtuta, eta %1,3koa lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



(*) 2003ko maiatzeko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2003ko maiatzean, urte arteko aldakuntzarik positiboenak, balio absolutotan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio finitza (%62,1), metalezko eta ez-metalezko meak (%39,0), ez-metalezko industria (%5,9) eta ehungintza eta jantzigintza (%4,3) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-21,3), bestelako manufakturak (%-10,6), elikagai-industria (%-9,9), makineria (%-3,7) eta metalurgia eta metalezko gauzak (%-3,5) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko maiatzean, igo egin dira, balio homogeneotan bitarteko ondasunen (%2,9) eta ekipo-ondasunen (%1,8) urte arteko tasak, baina jaitsi egin da kontsumo-ondasunen (%-3,5) tasa.

Urteko lehenengo bost hilabeteetan, hazkunde metatu handienak, balio homogeneotan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio finntzea (%8,7), kautxua eta plastikoa (%6,6), ehungintza eta jantzigintza (%5,9), material elektrikoa (%5,4) eta garraio-materiala (%4,6) arloei, besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-16,1), bestelako manufakturak (%-8,2), elikagai-industria (%-4,3) eta makineria (%-0,7) arloek, batik bat.

Lehenengo bost hilabeteetako aldakuntza metatuek, urte arteko konparazioko balio homogeneotan, honako datuak ematen dizkigute: bitarteko ondasunek (%2,4) eta ekipo-ondasunek (%0,7) hazkundeak izan dituzte, baina kontsumo-ondasunek %2,9ko jaitsiera izan dute.

Lurralde historikoka, lehenengo bost hilabeteetako joerak desberdintasunak agertzen ditu, balio homogeneotan: Bizkaiak izan du hazkunde metaturik handiena (%2,4), Gipuzkoa tartean kokatu da (%0,9) eta azkenik, Araban produkzioa jaitsi da (%-0,2) aurreko urteko aldi beraren aldean.

Taula: 2003ko MAIATZA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasa (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarri-maiatzeko tasa metatua		2003ko urtarri-maiatzeko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	-1,3	2,3	-0,7	0,4	0,7	1,3
Araba	-6,4	-2,7	0,4	1,6	-0,8	-0,2
Bizkaia	1,2	4,7	0,0	1,0	1,9	2,4
Gipuzkoa	-1,3	2,4	-2,0	-0,9	0,3	0,9
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	-0,2	2,9	-1,2	-0,3	1,9	2,4
Kontsumo-ondasunak	-7,2	-3,5	2,6	4,2	-3,4	-2,9
Ekipo-ondasunak	-2,6	1,8	-1,1	0,0	0,0	0,7

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es